

LANAREN ETA GOGOAREN INGURUAN

(J. CARO BAROJAREN DIBUJOAK ADIERAZIZ)

Buruak eta eskuak bizkortu zuten gizonaren sena. Gizon sortzaileagan buruaren gidaritzan eskuak egile. Baina, era berean, eskuen egiteko trebetasuna gauzen beharrak bultzatzen duen neurrian burua herak gogoeta sakonetara behartzen da. Bikoiztasun honen bidez abiatu zen gizona ekintza berezi-tara. Egiteko ahalmenak bizkortzetik sortzaile bihurtzera arte.

Dibujoa dugu noski, hori onduen adierazten diguna, idaztea baino lehenagoko grafia dugunezkero. Harriaroen ditugu honen lekukotasunak.

Gizonak, aintzinatik, zibilizazio batean aurrera joango bazen, beharrezkoa zuen hortik hastea. Memoria denez jakintza guziaren guraso; elkarrenganako komunikabide bihurtzeaz gainera, memoria, gizaldirik gizaldi, menderik mende, sentipenak, pentsamenak, ikerketak eta beste zenbait ekintza aurrera eramateko beharrezkoak bai ziren grafismo horiek.

Historiak jasotzen ditu gizonaren esperientziak, aurkimenak, eta horien ezagutzarako eta ezaguerazteko Etnografia eta Historia ditugu hezkuntzazko diziplinatzat. Julio Caro

Barojak goizago agertu zituen ikasketa horietarako doainak eta urratsik aski eman du bere bizitza zehar. Ikus besterik ez dugu gaztetxo zelarik nola erabili zuen marrazkigintza bere lehen lanetan: *Anuario de "Eusko-Folklore"*-n Lesakako lan haiek aurkeztean 1929 eta 1932. urteetan. Eta ordutik berebaitan dakarren ekintzak nakartzu, irakurle, lerro hauen bidez zerbait adieraztera.

T. Arantzadi eta J. M. Barandiaranen babespean hasi zen Julio etnografia lanetan, berak zenbait aldiz aitortu duenez. Hasieratik iduritu zitzaion dibujogintza beharrezko eta idaztearekin batean anitz urtetan aritu da, ofiziozko beharkizunetatik zaletasuna piztutzero arte. Gainera, dibujoa ez ezik pintatzera ere heldu da. Noizbait adierazpidetzat hartu zuen lana, artearen goimailetara eroanez. Bizpahiru urte izango dira Donostian erakusketa ideki zuela, eta ez nolana hikoia. Harrera ere tokatzen zitzaion modukoa izan zuen; oso ona.

Baina, lerro hauetan dibujora soilik mugatuko gara. Era askotakoak egin ditu eta nolabait komentatzeko beharrezkotzat jotzen dut duela bi urte Kultur Ministeritzak argitaratu zuen *Cuadernos de campo* deritzan liburuan oinarritzea. Zeren, idazten ari naizen une honetan oraindik ez bai dut ezagutzen aurten Donostian agertuko duen lana. Gainera, liburu hortan era guzietakoak biltzen bai dira eta, asmoa denez, oraingo erakusketa hau ere antzerakoa izango omen da.

Egia esan, liburu horri A. Fernández Alba-k gazteleraz egin zion sarreran, zientzia gizonaren dibujogintzaz, adierazpiderako egokitasunez eta Juliok hortarako dituen doainez,

uste dut, guzia esana duela. Horregatik, hemen, gure egitekoan, beste zenbait puntu eta xehetasun adieraziko ditugu bertako kulturari dagozkionak.

Etnografia lanen munduan, agian, gure artean, ez dugu Julio Caro Baroja aurkeztu beharrik. Aspaldiko urtetan, euskaldunok, oso ezaguna dugu erudizioz beterik etnografo eta historiagile bezala hain zientifikuki ari den gizon ospetsua.

Bere lan librearen antzera, solas libre batean aritzera ausartzen naiz. Molde hertsirik gabe, bere dibujoetako askatasunaren parera heltzen ez banaiz ere, eraz ildo beretik jarraitu nahi nuke, kontzeptu hertsietara lotu gabe. Baina, jadanik, aitor dezadan bere azkartasun horri ezingo diodala ezta hurrik eman ere. Berak eskaintzen dituen irudiak, gai bati loturik egonarren, artistaren idekitasunez emanak bai dira.

Lan konkretu bakoitzak bere egitura berezia duenez, antolakizun orokor batean irazkiz bildu beharra du, formarik egokienak emanez, bertan beharrezko diren trama guziekin eratuz. Aipatu dudan liburuari Julio berak sarreran jarri zizkion hitzetan dionez: “El ojo se educa para ver mejor” (Begia hobeto ikustera hezitzen da). Hori ezta besterik oserbaziorako doian bereziak berekiko gogoetaz lantzea baizik. Baina, horrez gainera, nere ustez, beste zerbaiten beharrik ere bazuen. Dibujoak ere aurretiko hezkuntza eskatzen du, esku-hezitzetik azpilanerako beharrezko diren teknikak ezagutu arte. Besteen ikuspegirako jantzi beharra bai du. Eta izan zuen hortarako maisurik; Alcántara, Benítez, Barnés

eta Lafuente Ferrari. Ez zituen luzaz eduki, zeren bere ikasketa arruntetan izan bai ziren, batxillerrean bereziki. Hala eere probetxu ederrik atera zion. Gainera, garai haietan, Brueghel zaharraren lanak maite zituen. Herriaren ohiturazko gaiak jasotzez aparte, bestelako gauza kapritxosoz, gauzarik bitxienez, bere oihalak bete zituenez. Orduko flamendarrak ezagaturik ezta batere harritzekoa etnologo batentzat italiarrek ekarri zuten Pizkundera hain gogozko ez izatea.

Argi gelditu bedi, J. Caro Barojak, ofiziozkoa duela dibujatu behar hori, etnografo eta etnologo denez gero. Hala ere, agirizkoa edo dokumentatzekoa baino zerbait gehiago da bere dibujoa. Etxeko giroak ere lagundu zion. Osaba Rikardoren langintzak hurbildik jarraitzen zituen eta hark aguaforteetan zuen dramatismoa, Espainiako tenebristegandik kutsatua, maiz nabari zaigu Julioren paisaje beltzetan. Baita ere etxeko girotik bereganatu zuen idazkera bizkor eta zuzena trebetasunez erabiltzea. Osaba Pioren joerak ageri dituenez *Los Baroja* (1972) deritzan liburu atseginean. Gainera, liburu hau behar beharrezkoa dugu Barojatarren etxeko giro hori ezagutzeko. Hortik ulerterrezago egingo zaigu Julioren zaletasuna eta langintzaren ezaguera. Baina, hartu zituen joera horiek ezinezkoak zitzaizkion berez sentibera izan ez balitz. Salamancak ez dio ematen gogoaren baitan lehendik ez duenari; alperrik Marixak makilatu, berez behar du.

Begirada batean ikus daiteke marrazki guziok ez direla molde berean sartzen direnak. Batzutan, nahi eta ezinezko

artista etsipenduaren itxura dute, urrengo erromantikotasuna atsegin zaionaren gisa edo esku eta zentzu egonezinetik barne gogoaren eskariz eta eraginezkoak, eta, inoiz, jolaskor hortarutzen denarenak. Baina badu beste alderdi bat ere: zientzia gizonarena, etnologo jakitunaren zehaztasunez gauzak adierazteko eginak direnez.

Gehienetan behintzat, etnologoak bere lanean jasotzeko egin zituen irudizko agiriak: hirigintzaz, arkitekturaz, hal-tzariz, tresneriaz, lanabesez,... guziotan teknika zaharrak zehatz adierazgarri egindako marrazki arruntak.

Oraingo lan hauetako batzuk *Los Vascos* (1949) liburuan argitaratu zituen lehen aldiz. Liburu honek, geroztik, beste argitalpen asko ezagutu ditu baina, tamalez, irudiz murriztuak.

Bere dibujoen lehen balioa hor dago, adierazpidean, etxeak, kaleak, gauzak, gizonaren teknikak oro, era garbi batean azalduz, ikuspegi egokiz agertuz. Hortarako, dibujoa menderatu beharra zuen. Eta ondo ikasi zuen, eskuaren hezieratik hasiaz. Hala erakusten digute bere lan hauek. Lerro eta marra bakoitzean, eskuak laguntzen dio zentzuak gidatzen duenetik, pentsamenaren aginduz doa, hutsik gabe eta alperrikako betegarririk gabe. Gehienbat, bide hortatik jarraitu du. Komunikapena du helburu; eta agirizkoez gainera, hor daude zientifiko eta artistiko baliodunak ere.

Dibujo hauek berekin dute adierazpidetza, espresio indarra, gauzak erakusteko argitasuna; argazkiari ezinezko zaiona. Fotografiak nekez lortzen bai du bereziki agertu nahi den partea, eta ezinezko zaio gauzen barnetikakoa

adieraztea, dibujoak ahal duen bezala. Pentsamena adierazte hortan, gauza bakoitzari bere barnea, bere mekanika eta zergatia erakusteko, komeni dena kenduz eta komeni dena ipiniz, edo gaineretiko eta azpitikako lerrokadaz, marratuz lortzeaz, hor irabazten dio fotografiari, gauzen berezitasunak sintetizatzean.

Langintzak berak eskatzen zionaren arabera irudiak egingen ohitu zen Julio. Honegatik, ezta estiloen erregela hertsietan mugatzen den gizona, ez. Lanak beharturik bete beharrezkoa aski du, eta hortik kanporakoan, paisaje, txoko berezi, etxe edo gogozko zaion beste edozer gai erabiltzean, libertatearen haize freskoa du maite eta estilo jakinen molde estuetatik ihesi doa; bere gogoari amain emonaz. Gainera, esango nuke, inoiz lan bat hasteaz ez dakiela nola bukatuko duen; axolarik gabe, ekinalean joango da, ekintzaz bere bidea idekiz, helburu bateruntz baina mugarik jarri gabe.

Ber berak esaten zigun: “el dibujo me ha parecido una herramienta de trabajo indispensable y lo he considerado como elemento fundamental para *comprender*.” Era berean, aitortuko zigun, inoiz artista aipatua izateko asmorik ez zuela izan. Beraz, aburu hauekin, zertarako jarri muga hertsia? “Un dibujo supone siempre selección, realce de elementos significativos y exclusión de los que no lo son”.

Hala aurkituko ditugu bere langintzan etnografo ofiziotik hasi eta gogozko arte zaletasunaren eraginerainokoak.

Arestian esan bezala, liburu hontarako egin den hautaketa ezagutzen ez dedanez, aipatutako *Cuadernos de campo* delakoan oinarrituko naiz, zenbait joerazko ohargintzan:

Zuzenean Etnografiako irudi teknikoak direnak, argi daude, ofizioak berak eskatzen duena beteaz. Lezoko ateburuko itsasontzitik hasi eta nekazari lanabesak beren mekanika partea erarik egokienean adieraztera arte, ateetako burdinak, sukaldeko tresneria, kutzak eta gainerako haltzariak; artzai tresnak, hilarri biribilak eta abar. Maiz, zenbakizko deiak jarriaz eta azpikaldean parte bakoitzaren izenak edo zergatia ipiniaz. Hauetarikoak, gehienetan, arin eginak dira, lerro soilez. baina detalle guziak xehetasunez jasoaz, begi zoliaren ikuspegiz.

Paisajeen ikuspegietan ordea, era askotarikoak ditu. Bere ofizio aldetik begiraturik, irudirik garbienez azaldu nahi dituenen artean hautatuko nituzke Belmonte Alto-ko *Cortijo* hura, Granadako Babolea kalea, Albaicín, Logroño-ko Rúa zaharreko etxea, Las Conchas de Haro, Pizkunde garaiko ataria Pancorbon, Espainiakoetan; Tetuán eta El Aaiún, Afrikan; Salinillas de Buradon, Mezquia, Ali, Salvatierra (Aguraingo jauregia eta "Olbeas" = oholpeko aterpeak) eta abar, Araban. Batzutan zirriborro soilez adieraziak badira ere, gehienetan marra arinez baina ondo eginak. Caro Barojak, marrazki horien bidez, historian barna sartzen gaitu, lehengo bizitzaren mundua erakutsiz.

Baditu beltzuriz ebakitako eskemak ere, silueta soilez eginak, *collage* itxurazkoak: Montoro (Córdoba), Salobreña, Alpujarra-ko herriak, Alcaudete, Almodóvar eta beste. Nere iduriz, hauek ez dira egokienak. Besterik dira zuriaren gainean lerro mehar soilez Araban egin zituen marrazki fin haiek: Kexana, Pipaongo atea, Portilla de Ibda, Agurain, Kontrasta eta Berganzo adibidez.

Ikuspegi eta azpilan desberdinez egin zituen Jaen-go oli-badiak, 1949an egina. Beraz, era hori erabiltzeko nahikoa goiz hartu zituen azpilanezko kontzeptu horiek, Benjamín Palencia-ren paisajeetan baino aisago Ortega Muñoz-enetan agertzen diren erara.

Julio, kolorezko irudietan sartzen denean, bereziki orio-pinturaz ari denean, *fauvismo*-aren kolore bizi guziak biltzen ditu, garbi eta elkarren artean ongi ordenatuak. Bere pintzeladan ezagun du lumaz dibujatzen ohitua denaren eskua. Barrokizmo itxuraz kargatzen ditu bere oihalak; baina bere era berezia erakutsiz. Paisajearen formetan erromantiko kutsua nabari du eta inoiz aintzinako flamendarren oroitza dakar.

Joera horiek badute zer ikusirik artegintzaz baliatuz bere lanaren eta gogoaren inguruan ahaleginik gehien eskaini duen marrazkietan agertzen duenarekin. Behar bada, hau izan da gogozkoen landu duen irudigintza, dibujo lerroz itzalduz beteak. Ilunak dira gehienak bere osaba Rikardo eta Zuloagaren antzera, Espainiako tenebrismo kutsua nabari dute. Baina bai direla lan ederrak.

Marrazki horietan, etnografoari dagokionez, inguruaren deskribatzailea da, bai paisajeen eta bai etxeak adieraztean. Egin ere, bere epidermis guziarekin eginak dira, etxeak ere beren zuraje eta adreiluz, beren zahartasun tankeraz, egitura dena agiri agirian jarritz. Zalantzarik gabe, arte aldetik begiraturik, era hortakoak ditu baliozkoenak, plastikarik nabarmenenak. Gainera, ugari egin ditu. Hara nola, Grazalema (Cádiz), Cuenca, León-go harresia, San Vicente de

la Sonsierra, Cellorigo, Pontevedra, Gomara Marruekoskoa, Smara-ko Alkazabaren sarrera; Mendoza dorrea, Arrizalako Sorginetxeta treguharria, Alagua eta baserri bat Araban, Mutriku Gipuzkoan eta abar.

Bai produkzioz eta bai formaz, aberatsa dugu Julio Caro Barojaren ekarria, bereziki azkenen aipatu ditudan paisajetako eretan. Hor eskaini bai du bere lanaren eta gogoaren ingurua.

J. SAN MARTIN